



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HERIKULTURA
POLITIKA SABA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

EAEko kultura-programazioaren azterketa

2023. URTEA





Aurkibidea

0. AURKEZPENA	3
1. FITXA TEKNIKOA	4-6
Azterketa-unibertsoa	5
Ohar metodologikoak	6
2. EKITALDIEN AZTERKETA	7-9
Datuen laburpena	8
Ekitaldien banaketa, motaren arabera	9
3. KONTZERTUAK	10-14
Ekitaldiak eta sarreren prezioa	11
Kontzertuen banaketa, lurraldearen arabera	12
Kontzertuen banaketa, hizkuntzaren arabera	13
Kontzertuen banaketa, musika-generoaren arabera	14
4. ANTZERKIA	15-20
Emanaldiak, ekitaldiak eta ekitaldien batez besteko prezioa	16
Antzerki-emanaldien banaketa, lurraldearen arabera	17
Antzerki-emanaldien banaketa, hizkuntzaren eta publiko-motaren arabera	18
Antzerki-emanaldien banaketa, antzerki-generoaren arabera	19
5. DANTZA	20-23
Emanaldiak, ekitaldiak eta sarreren prezioa	21
Dantza-emanaldien banaketa, lurraldearen arabera	22
Dantza-emanaldien banaketa, dantza-generoaren arabera	23
6. BERTSOLARITZA	24-25
Ekitaldiak eta haien banaketa, lurraldearen arabera	25
7. ERAKUSKETAK	26-27
Ekitaldiak eta haien banaketa, lurraldearen arabera	27



0- Aurkezpena

2023ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean programatutako kultura-ekintzen azterketa

2023ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko kultura-programazioaren egoeraren berri ematen du txosten honek.

Bi ataletan banatuta dago azterketa. Batetik, **kultura-programazioaren** egoera erakusten da **bere osotasunean**, ekitaldi-moten arabera eta 2022ko epealdi bereko datuekin alderatuta. Bestetik, **bost kultura-esparru** zehatzen kultura-programazioaren errealitatean sakontzen da: **Musika**, **Antzerkia**, **Dantza**, **Bertsolaritza** eta **Erakusketak**.



1. Fitxa teknikoa

Azterketa honetarako erabilitako
unibertsoa





AZTERKETA-UNIBERTSOA

INFORMAZIO-ITURRIA	Kulturklik* (www.kulturklik.euskadi.eus)
AZTERTUTAKO UNIBERTSOA	17.235 ekitaldi Unibertso osoa, ez lagin bat
JASOTAKO EKITALDI-MOTAK	13 ekitaldi-mota Kontzertuak, antzerkia, erakusketak, dantza, bertsolaritza, jaiak, hitzaldiak, azokak, ikus-entzunezko emanaldiak, ikastaroak/tailerrak, lehiaketak, jaialdiak, bestelakoak
AZTERTUTAKO EPEALDIA	2023ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean programatutako ekitaldiak
AZTERTUTAKO LURRALDEAK	Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa
DATUEN AZTERKETA ETA KOORDINAZIO TEKNIKOA	Kualitate Lantaldea (Kulturklik taldea)

*Bertsolaritzaren datuak aztertzeko erabilitako informazio-iturria Bertsozale Elkartearen izan da



OHAR METODOLOGIKOAK

ERAKUSKETAK

- **Aztertutako erakusketak erreferentziazko epealdian (2023ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean) inauguratutakoak dira**, haien amaiera-data edozein dela ere. **Ez dira kontuan izan 2023an zehar jendearentzat irekita zeuden arren 2023ko urtarrilaren 1a baino lehen inauguratu ziren erakusketak.**

IKUS-ENTZUNEZKO EMANALDIAK

- **Kulturklien ez dira jasotzen** EAEko zinema-areto guztietako **film komertzialen emanaldiak**. Honako hauek baino ez dira argitaratzen Kulturklikeko agendan: euskal filmen emanaldiak EZAren zinema-areoetan, euskarazko filmen emanaldiak (Zinema Euskaraz) eta programa bereziki lotutako emanaldiak (zinema-zikloak, zineforumak eta/edo zineklubak, esaterako).

PREZIOAREN ALDAGAIA

- **Kontzertuen eta antzerki- eta dantza-emanaldien prezioa soilik hartu da kontuan**. Ez da aztertu bertsolaritza-ekitaldien eta erakusketen prezioa, bi arrazoi nagusirengatik: batetik, doako ekitaldiak izaten dira kasu askotan (aire zabaleko bertso-saioak eta kultur etxeetako edo udal-espazioetako erakusketak doan izaten dira ia beti); bestetik, bi ekitaldi-mota horietan, sarrerek ekitalditik haragoko beste jarduera batzuk ere barne hartzen dituzte maiz (adibidez, bertso-afari edo -bazkarietako sarrerek barne hartzen dituzte afaria edo bazkaria, eta museoetako sarrerek zentro jakin horren erakusketa-eskaintza osoa bisitatzeko aukera ematen dute, erakusketa bakarrera mugatu ordez). Aztertutako unibertsoari dagokionez, **batez besteko prezioa kalkulatzeko**, ordainpeko kontzertuak eta dantza- edo antzerki-ikusketak baizik ez dira izan dira kontuan, hots, **kanpoan utzi dira doako ekitaldiak**.

EMANALDIEN ARABERAKO AZTERKETA

- Estatistika-helburuekin, formatu txikiko antzezlanak programatutako egunen arabera zenbatu dira, eta ez egindako emanaldien arabera.

AUTOMATIZAZIOEN ERAGINA

- Kulturklien etengabeko hobekuntza-prozesuaren baitan, **edukiak argitaratzeko automatizazio-mekanismoak** jarri dira martxan EAEko hainbat kultura-eragilerekin. Horren ondorioz, **ekitaldi-mota batzuen kopurua hazi egin da**; honako hauena, besteak beste: Bestelakoak, Ikus-entzunezko emanaldiak eta Hitzaldiak.

2. Ekitaldien azterketa

EAEko kultura-jardueraren laburpena:
2023ko urtarrilak 1-abenduak 31



DATUEN LABURPENA

Kulturklikeko agendan jasotako datuen arabera, 17.235 kultura-ekitaldi egin dira EAEn 2023ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean.

17.235 ekitaldi

2023an

16.221 ekitaldi


2022an

+% 6



EKITALDIEN BANAKETA, MOTAREN ARABERA

1. grafikoa: Ekitaldien banaketa, motaren arabera



*Jaiak, Lehiaketak, Ikastaroak/tailerrak, Jaialdiak eta Azokak



3. Kontzertuak

2023an EAEn izandako kontzertuen
azterketa





KONTZERTUAK: EKITALDIAK ETA SARREREN PREZIOA

5.569
kontzertu

2023an, EAEn izan diren 5.569 kontzertu jaso dira Kulturkliken.

Ordainpeko kontzertuen batez besteko prezioa 14,4 eurokoa izan da.

PREZIOA
(BATEZBESTEKO ARITMETIKOA)

14,4 €


PREZIOA
(MEDIANA)

12,0 €



KONTZERTUEN BANAKETA, LURRALDEAREN ARABERA

2. grafikoa: Kontzertuen banaketa, lurraldearen arabera (%)



1. taula: Kontzertuen banaketa, lurraldearen arabera, 100.000 biztanleko

	KONTZERTUAK, 100.000 biztanleko
ARABA	232
BIZKAIA	217
GIPUZKOA	321

Kulturklien jasotako kontzertuen banaketa lurraldearen arabera aztertuta, kontzertu guztien % 44,6 Bizkaian izan dira, % 41,5 Gipuzkoan eta % 13,9 Araban.

Kontzertuen banaketa lurraldearen arabera 100.000 biztanleko kalkulaturik, **Gipuzkoa** izan da kontzertu gehien programatu duen **lurraldea**: 321 ekitaldi 100.000 biztanleko.



KONTZERTUEN BANAKETA, HIZKUNTZAREN ARABERA

2. taula: Kontzertuen banaketa, hizkuntzaren arabera (%)

	KONTZERTUAK %
EUSKARA	27,0
GAZTELANIA	20,0
HIZKUNTZA GABE	17,9
HAINBAT HIZKUNTZA *	14,7
INGELESA	13,3
BESTE BATZUK	1,2
EZEZAGUNA	5,9

Kontzertuen hizkuntzari dagokionez, euskara izan da hizkuntza erabiliena EAEko 2023ko musika-emanaldietan: kontzertuen % 27 euskaraz izan dira, gaztelaniazko kontzertuen (% 20) eta hizkuntza gabeko emanaldien (% 17,9) aurretik.

Hainbat hizkuntzatako emanaldiak % 14,7 izan dira, ingelesezkoen (% 13,3) aurretik.

*Hizkuntza ezberdinetan abesten duten taldeek ekitaldi beraren barruan emandako kontzertuak dira gehienbat



KONTZERTUEN BANAKETA, MUSIKA-GENEROAREN ARABERA

3. taula: Kontzertuen banaketa, musika-generoaren arabera (%)

	KONTZERTUAK %
MUSIKA GARAIKIDEA (pop-a, rock-a, heavy-a, rap-a, jazz-a, funk-a, fusio-musika, reggaea...)	77,4
MUSIKA KLASIKOA	8,9
MUSIKA ESPIRITUALA (erlijiosoa, korala, gospela, organoa...)	6,0
EUSKAL MUSIKA HERRIKOI ETA TRADIZIONALA	3,8
MUNDUKO MUSIKAK	2,6
BESTE BATZUK	1,3

Musika garaikideko emanaldiek izan dute presentzia handiena EAEko 2023ko kontzertuen agendan; emanaldi guztien % 77,4 genero horretakoak izan dira.

Musika klasikoko kontzertuak guztien % 8,9 izan dira, eta musika espiritualekoak % 6.

Euskal musika herrikoi eta tradizionala eta munduko musikak generoetako kontzertuak guztien % 3,8 eta % 2,6 izan dira, hurrenez hurren, 2023an.



4. Antzerkia

2023an EAEn izandako antzerki-emanaldien azterketa





ANTZERKIA: EMANALDIAK, EKITALDIAK ETA SARREREN PREZIOA

4.562
emanaldi

2023an, EAEko 4.562 antzerki-emanaldi jaso dira Kulturkliken.

Ordainpeko antzerki-ekitaldien batez besteko prezioa 10,9 eurokoa izan da.

3.601
ekitaldi

PREZIOA
(BATEZBESTEKO ARITMETIKOA)

10,9 €


PREZIOA
(MEDIANA)

9,0€



ANTZERKI-EMANALDIEN BANAKETA, LURRALDEAREN ARABERA

3. grafikoa: Antzerki-emanaldien banaketa, lurraldearen arabera (%)



4. taula: Antzerki-emanaldien banaketa, lurraldearen arabera, 100.000 biztanleko

	ANTZERKI-EMANALDIAK, 100.000 biztanleko
ARABA	199
BIZKAIA	201
GIPUZKOA	222

Kulturklien jasotako antzerki-emanaldien banaketa lurraldearen arabera aztertuta, **erdiak (% 50,4) Bizkaian** izan dira, % 35,1 Gipuzkoan eta % 14,5 Araban.

Emanaldien banaketa lurraldearen arabera **100.000 biztanleko** kalkulatuta, **handiagoa** izan da **Gipuzkoan (222)**, Bizkaian (201) eta Araban (199) baino.



ANTZERKI-EMANALDIEN BANAKETA, HIZKUNTZAREN ARABERA

5. taula: Antzerki-emanaldien banaketa, hizkuntzaren arabera (%)

	ANTZERKI-EMANALDIAK %
GAZTELANIA	44,1
EUSKARA	41,2
HIZKUNTZA GABE	10,9
HAINBAT HIZKUNTZA *	2,4
BESTE BATZUK	1,4

*Aldi berean hizkuntza bat baino gehiago darabilten antzezlanen emanaldiak edo hizkuntza ezberdinetako emanaldiak dituzten antzerki-ekitaldiak

2023ko antzerki-emanaldien % 44,1 gaztelaniaz izan dira; % 41,2, euskaraz. Bestalde, emanaldien % 10,9 hizkuntza gabeak izan dira (keinu-antzerkia, objektu-antzerkia...).

Publiko-motari dagokionez, emanaldien % 43 haurrei eta/edo familiei zuzenduta egon dira.

Emanaldien

% 43

haurrentzat eta/edo familientzat



ANTZERKI-EMANALDIEN BANAKETA, ANTZERKI-GENEROAREN ARABERA

6. taula: Antzerki-emanaldien banaketa, antzerki-generoaren arabera (%)

	ANTZERKI-EMANALDIAK %
TESTU-ANTZERKIA	59,2
ZIRKUA	13,9
ANTZERKI MUSIKALA	9,6
KALE-ANTZERKIA	6,9
MAGIA	4,5
BESTE BATZUK	4,4
ANTZERKI LIRIKOA	1,5

Antzerki-generoari dagokionez, 2023an EAEn egindako emanaldien % 59,2 testu-antzerki motakoak izan dira.

Emanaldi-kopuru handiena izan duen bigarren antzerki-generoa zirkua izan da (emanaldi guztien % 13,9), eta hurrengoa, antzerki musikala (% 9,6).

Jarraian kokatu dira, emanaldien % 6,9rekin, kale-antzerkia eta magia (% 4,5). "Beste batzuk" moduan sailkatutako ikuskizunak (hizkuntza gabeko antzerki-emanaldiak dira batez ere: txotxongiloak, maskarak...) antzerki-emanaldi guztien % 4,4 izan dira.

Emanaldi-kopuru txikiena izan duen antzerki-generoa antzerki lirikoa izan da, 2023ko emanaldi guztien % 1,5ekin.

5. Dantza

2023an EAEn izandako dantza-emanaldien azterketa





DANTZA: EMANALDIAK, EKITALDIAK ETA SARREREN PREZIOA

845
emanaldi

2023an, 845 dantza-emanaldi egin dira EAEn.

Ordainpeko dantza-ikuskizunen batez besteko prezioa 13,4 eurokoa izan da.

742
ekitaldi

PREZIOA
(BATEZBESTEKO ARITMETIKOA)

13,4 €


PREZIOA
(MEDIANA)

10,0 €



DANTZA-EMANALDIEN BANAKETA, LURRALDEAREN ARABERA

4. grafikoa: Dantza-emanaldien banaketa, lurraldearen arabera (%)



7. taula: Dantza-emanaldien banaketa, lurraldearen arabera, 100.000 biztanleko

	DANTZA-EMANALDIAK, 100.000 biztanleko
ARABA	30
BIZKAIA	36
GIPUZKOA	47

Dantza-emanaldi guztien % **48,5 Bizkaian** izan dira, % 39,6 Gipuzkoan eta % 11,9 Araban.

Dantza-emanaldien banaketa lurraldearen arabera **100.000 biztanleko** kalkulaturik, **Gipuzkoa izan da dantza gehien programatu duen lurraldea** (47 emanaldi), Bizkaiaren (36) eta Arabaren (30) aurretik.



DANTZA-EMANALDIEN BANAKETA, DANTZA-GENEROAREN ARABERA

8. taula: Dantza-emanaldien banaketa, dantza-generoaren arabera (%)

	DANTZA-EMANALDIAK %
DANTZA GARAIKIDEA	66,6
DANTZA TRADIZIONALA	23,2
BALLET KLASIKOA	4,9
BESTE BATZUK	5,3

Dantza garaikidea izan da EAEko agertokietan emanaldi gehien izan duen dantza-generoa, guztien % 66,6. **Dantza tradizionala** izan da bigarrena, emanaldien % 23,2rekin.

Azkenik, dantza-emanaldien % 4,9 **ballet klasikokoak** izan dira, eta "**beste batzuk**" moduan sailkatu dira emanaldien % 5,3; **dantza eta beste diziplina artistiko batzuk** (antzerkia edo bertsolaritza, esaterako) **uztartzen dituzten ikuskizunak** izan dira, batez ere.

6. Bertso-larritza

2023an EAEn izandako bertso-ekitaldien
azterketa






BERTSOLARITZA: EKITALDIAK ETA HAIEN BANAKETA, LURRALDEAREN ARABERA

1.065 bertso-saio

2023an, 1.065 bertso-saio egin dira EAEn.

5. grafikoa: Bertso-saioen banaketa, lurraldearen arabera (%)



9. taula: Bertso-saioen banaketa, lurraldearen arabera, 100.000 biztanleko

	BERTSO-SAIOAK, 100.000 biztanleko
ARABA	32
BIZKAIA	34
GIPUZKOA	79

Kulturklien jasotako bertso-saioen banaketa lurraldearen arabera 100.000 biztanleko nabarmen handiagoa da Gipuzkoan (79 ekitaldi 100.000 biztanleko), Bizkaian (34) eta Araban (32) baino.



6. Erakusketak

2023an EAEn izandako erakusketen
azterketa






ERAKUSKETAK: EKITALDIAK ETA HAIEN BANAKETA, LURRALDEAREN ARABERA

1.233 erakusketa

2023an, 1.233 erakusketa inauguratu dira EAEn.

6. grafikoa: Erakusketen banaketa, lurraldearen arabera (%)



10. taula: Erakusketen banaketa, lurraldearen arabera, 100.000 biztanleko

	ERAKUSKETAK, 100.000 biztanleko
ARABA	69
BIZKAIA	52
GIPUZKOA	56

Erakusketen banaketa lurraldearen arabera 100.000 biztanleko kalkulatuta, handiagoa izan da Araban (69), Gipuzkoan (56) eta Bizkaian (52) baino.